

OINARRIZKO EKINTZAK

Enpresaren ekintza nagusia arrabolen ekoizpena da. Arrabolak kate prozesuan ekoiztuko ditugu. Lehenengo zatia arrabolak mekanizatzea izango da. Mekanizazio prozesua guk eginga izango da erabat, mekanizazio prozesuan arazoren bat izan ezkerro beste mekanizazio enpresa batera bideratuko genituzke piezak guk egin ezin duguna haiek mekaniza dezaten.

Prozesuaren bigarren zatian piezak muntatuko dira, guk ekoizturiko piezak muntatzeko torloju zein errodamenduak erosi beharko ditugu, eta biltegian edukiko ditugu segurtasun stockean, gure kate prozesua moztu ez dadin. Torlojuak eta errodamenduak egunen baten ez badira garaiz iristen guk mekanizatuko ditugu, guk denborarik izango ez bagenu, kanpoko enpresa batengana bideratuko genuke lana.

Muntaia prozesua bukatzean, gure enpresan paketatuko dugu produktuak. Arazoren bat sortzen bada kanpoko enpresa batera bidaliko dugu paketzeko. Kostu egiturako taulan ikusi daiteke biltegiatze eta salmenta portzentaia.

